DEBAko UDALA



# Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ezohizko Udalbatzarra
**Zenbatgarrena:** laugarrena
**Eguna:** 2018/04/13
**Hasiera-ordua:** 18:30
**Amaiera-ordua:** 18:50
**Onarpen-eguna:** 2018/05/31

## Bertaratutako zinegotzi hautatuak:

PEDRO Mª BENGOETXEA LOIOLA
IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA
AITOR SALEGI IRURETA
ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA
Mª LUISA ALBIZU BEITIA
MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN
AIMAR LASA URKIRI
IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA
UNAI LEKUBE ARANBERRI
ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

## Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN
JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN
MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA
CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

## Bertaratzeak eta irteerak

## Gora-beherak

## Aztergaiak:

1. 2018ko urterako Udal aurrekontua. Alegazioak erantzun eta behin betiko onespena emateko proposamena.

2. Eskariak eta galderak.

DEBAko UDALA

# Esan-eginak eta erabakiak

**2.- 2018ko urterako Udal aurrekontua. Alegazioak erantzun eta behin betiko onespena emateko proposamena.**

***Txostena***

Udal aurrekontuak onartzeko edo aldatzeko jarraitu behar den prozedurari dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Araua da aplikagarria.

2018ko otsailaren 27an egindako Udalbatzarraren saioan hasierako onespena eman zitzaien aurrekontuei.

Udalbatzaren akordioaren hasierako onespenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2018ko martxoaren 5ean eta jendaurrean egon zen hamabost egunetan.

Epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izan dizkiote. Horiek horrela,XXren erreklamazioa jaso da emandako epean. Erreklamazio horretan eskatzen da:
*"Debako Udalaren Osoko Bilkurak 2018. Urteko Udal aurrekontua eta aurrekontuaren exekuziorako Udal Arauaren lehen onespenaren erabateko deuseztasuna onartu eta 2018. Urterako Itziarko Toki Entitate Txikiari dagokion aurrekontu esleipena kalkulatzerakoan. 3/2015 Foru Dekretuaren eranskineko "Aurrekontu esleipenak" atalean jasotzen den "a) ohiko ekarpen formularen arabera kalkulatzea, hau da, Debako Udalaren 2018ko onartutako aurrekontuaren 1. Kapituluari aplikatu beharreko indize biderkatzailea (%5,93koa) kontuan hartzea.*"

2018ko apirilean egindako Ogasuna, Ondare eta Kontuetarako Batzorde Bereziaren bileran proposatu zen alegazioa ez onartzea.

Behin betiko onespena Udalbatzarrari dagokio. Onespenak, gehiengo soila eskatzen du.

Jarraian Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da udal aurrekontuaren laburpena. Aurrekontua, berari dagokion ekitaldian jarriko da indarrean argitaratu ondoren.

Aurrekontuaren behin betiko onespenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean, aginpide horri buruzko arauetan ezarritako moduan eta epeetan.

Errekurtsoak jartzeak ez du berez etengo udalak behin betiko onetsitako aurrekontuaren aplikazioa.

*Iritziak eta galde erantzunak*

Iñaki Esnaola zinegotziak hitza hartu du, eta esan du ez dakitela nondik datorren alegazioan jasotzen den erreferentzia 1. Kapituluari aplikatu beharreko indize biderkatzailea (%5,93koa) kontuan hartzea, ehuneko hori ez baitator ez Dekretutik ez inondik. Gainerat du, bi aldeek pila bat bilera eta elkarrizketa egin dituztela hitzarmena lortzeko eta ez lortzerakoan 2017ko martxoan "Debako Udalaren eta Itziarko Toki Entitate Txikiaren eskumenen erregimena eta horien finantzaketa arautzeko" dokumentua onartu zela Udalbatzarrean eta dokumentu hori dela hain zuzen ere beraien jarraibidea. Azkenik esan du, 1º kapituluari dagokion kopurua ez dutela egokia ikusten Debako Udaleko pertsonalarekin betetzen baita beharra. Ondorioz, alegazioa ez onartzea proposatu du batzordeak.

Maider Zubikarai zinegotziak esan du, bera ez zela batzordera joan eta ez dutela batzordearen inongo dokumentaziorik jaso eta idazkariari galdetu dio ez ote zen egon behar. Idazkariak erantzun du baietz, batzordearen proposamena eta diktamena egon beharko litzatekeela. Bestalde esan du, 1º kapituluari dagokion kopurua ez onartzearen arrazoia baldin bada jadanik lana Udaleko pertsonalarekin egiten dela, hori justifikatu egin beharko litzatekeela. Gaineratu du, alegazioak Dekretua betetzea, besterik ez duela eskatzen. Azkenik galdetu du ze aurreikuspen dagoen eta ze kronograma dagoen. Jadanik hiru urte pasatu dira eta eskumen batzuk garatu beharko ziren. Aurreko Udalbatzarrean galdetutakoa berretsi egiten du.

Pedrok erantzun dio ehuneko hori baino gehiago egiten dela udal pertsonalarekin eta beraiek ez dutela nahi pertsonala bikoiztea.

Aimar Lasa zinegotziak esan du, Debako herritarrei aldizkari bidez jakinarazi zaiela akordio bidez ez bada gehiengo bidez Toki Entitate Txikia aldatuko dela eta horren harira galdetu du zein den Udalaren plangintza eta zein den EAJren jarrera udal gobernukide izanda.

Alkateak erantzun dio asmoa dela akordioa egotea eta nahi izanez gero kronograma emango dioela.

Unai Lekube zinegotziak erantzun dio Aimarri helburua dela akordiora heltzea, baina alderdian landuko dutela gaia. Akordioa egon ezean ikusiko dute zein urrats eman. Gaineratu du Toki Entitate Txikian gauza asko eta ondo egin direla baina beraiek beste modelo bat nahi dutela.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

**BOZKETA**

| | |
|---|---|
| ◊ **Bozketan parte hartu duten zinegotziak**: .................................................. | **9** |
| ◊ **Aldeko botoak**: ................................................................................... | **7** |
| **Aldeko boto-emaileak**: PEDRO Mª BENGOETXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGUIDAZU, Mª LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.<br>◊ IÑIGO CAMBRONERO, UNAI LEKUBE EAJ-PNVko zinegotziak. | |
| ◊ **Abstentzioak**: .................................................................................... | **2** |

| | |
|---|---|
| ◊ **Abstenitu direnak**: MAIDER ZUBICARAY, AIMAR LASA, EH Bilduko zinegotziak. | |
| ◊ **Abstentzioak:** | **0** |
| ◊ **Emaitza**: UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA | |

***Erabakia.***

Udalbatzarra osatzen duten hamahiru zinegotzietatik bederatzi bilkuran direla, Udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du goian adierazitako gehiengoarekin:

**Lehenengo.-** XXren alegazioa gaitzetsi, 1. Kapituluari aplikatu beharreko %5,93ko indize biderkatzailea, Dekretuan eta gainerako dokumentuetan oinarririk ez baitauka.

**Bigarrena.-** 2018 urteko Aurrekontuei eta Aurrekontu Orokorra betetzeko Udal Arauari, behin betiko onespena ematea.

Aipatu Aurrekontu Orokorra honakotaz osatua dago:

— Udalaren Aurrekontua.
— Deba Musikal Patronatuarena.
— Esku Langintza Eskola Fundazioarena eta
— Itziarko Toki Entitate Txikiarena.

Aipatu Aurrekontu Orokorra kapituluka laburtuta honako hau da:

| KONTSOLIDATUTAKO AURREKONTU OROKORRA: | PRESUPUESTO GENERAL CONSOLIDADO: |
|---|---|
| GASTUEN EGOERA | ESTADO DE GASTOS |
| Kapitulua Izendapena Euroak | Capítulo Denominación Euros |
| **A) Eragiketa arruntak** | **A) Operaciones corrientes** |
| 1.Langileen ordainsariak………………2.729.652,00€ | 1.Remuneración de personal ………….2.729.652,00€ |
| 2.Ondasun arruten eta zerbitzuen erosketa……………………3.961.383,00€ | 2.Compra de bienes corrientes y de servicios.........................................3.961.383,00€ |
| 3.Interesak.................................................12.230,00€ | 3.Intereses..................................................12.230,00€ |
| 4.Transferentzia arruntak.........................464.511,00€ | 4.Transferencias corrientes.......................464.511,00€ |
| **B) kapitalaren eragiketak** | **B) Operaciones de capital** |
| 6.Inbertsio errealak…………...………….294.308,00€ | 6.Inversiones reales..................................294.308,00€ |
| 8.Finantz aktiboen aldaketa……………..….3.000,00€ | 8.Variación activos financieros.....................3.000,00€ |
| 9.Finantz pasiboen aldaketa.....................326.540,00€ | 9.Variación pasivos financieros................326.540,00€ |
| **GUZTIRA 7.791.624,00 €** | **TOTAL 7.791.624,00 €** |
| SARREREN EGOERA | ESTADO DE INGRESOS |
| **Kapitulua Izendapena Euroak** | **Capítulo Denominación Euros** |
| **A)Eragiketa arruntak** | **A)Operaciones corrientes** |
| 1.Zuzeneko zergak..............................2.180.856,00€ | 1.Impuestos directos...........................2.180.856,00 € |
| 2.Zeharkako zergak...................................50.000,00 € | 2.Impuestos indirectos...............................50.000,00 € |
| 3.Tasak eta bestelako sarrerak...............1.364.000,00 € | 3.Tasas y otros ingresos.........................1.364.000,00 € |
| 4.Transferentzia arruntak.......................4.166.052,00 € | 4.Transferencias corrientes....................4.166.052,00 € |
| 5.Ondare sarrerak......................................27.710,00€ | 5.Ingresos patrimoniales............................27.710,00€ |

**B) Kapitalaren eragiketak**
6. Inbertsio errealen inorenganatzea....................6,00€
7. Kapital transferentziak……………..…………0,00€
8. Finantz aktiboen aldaketa.........................3.000,00€

**GUZTIRA 7.791.624,00€**

**B) Operaciones de capital**
6. Enajenación de inversiones reales....................6,00€
7. Transferencias de capital.................................0,00€
8. Variación activos financieros....................3.000,00€

**TOTAL 7.791.624,00€**

**UDALARENAK**

GASTUEN EGOERA

**Kapitulua Izendapena Euroak**

**A) Eragiketa arruntak**
1.Langileen ordainsariak…………….2.115.445,00€
2.Ondasun arruten eta zerbitzuen erosketa…………..
…………………………………………3.201.428,00€
3.Interesak..................................................12.200,00€
4.Transferentzia arruntak……………1.679.034,00€

B**) kapitalaren eragiketak**
6.Inbertsio errealak………..…………..…156.260,00€
8.Finantz aktiboen aldaketa…..……………..3.000,00€
9.Finantz pasiboen aldaketa.....................326.540,00€

**GUZTIRA 7.493.907,00 €**

SARREREN EGOERA

Kapitulua Izendapena Euroak

**A)Eragiketa arruntak**
1.Zuzeneko zergak..............................2.180.856,00€
2.Zeharkako zergak...................................50.000,00 €
3.Tasak eta bestelako sarrerak...............1.233.000,00 €
4.Transferentzia arruntak.......................3.999.535,00 €
5.Ondare sarrerak......................................27.510,00€

**B) Kapitalaren eragiketak**
6. Inbertsio errealen inorenganatzea....................6,00€
7. Kapital transferentziak....................................0,00€
8. Finantz aktiboen aldaketa........................3.000,00€.

**GUZTIRA...........................................7.493.907,00 €**

**DEL PROPIO AYUNTAMIENTO**

ESTADO DE GASTOS

**Capítulo Denominación Euros**

**A) Operaciones corrientes**
1.Remuneración de personal ……… . ..2.115.445,00€
2.Compra de bienes corrientes y de servicios
……………………………………….3.201.428,00€
3.Intereses...................................................12.200,00€
4.Transferencias corrientes....................1.679.034,00€

**B) Operaciones de capital**
6. Enajenación de inversiones reales.........156.260,00€
8. Variación activos financieros....................3.000,00€
9. Variación pasivos financieros..............326.540,00€

**TOTAL 7.493.907,00 €**

ESTADO DE INGRESOS

Capítulo Denominación Euros

**A)Operaciones corrientes**
1.Impuestos directos..........................2.180.856, 00 €
2.Impuestos indirectos...............................50.000,00 €
3.Tasas y otros ingresos.........................1.233.000,00 €
4.Transferencias corrientes....................3.999.535,00 €
5.Ingresos patrimoniales............................27.510,00€

**B) Operaciones de capital**
6. Enajenación de inversiones reales....................6,00€
7. Transferencias de capital.................................0,00€
8. Variación activos financieros....................3.000,00€

**TOTAL……………….…….……..…..7.493.907,00 €**

**DEBA MUSIKAL PATRONATUARENA**:

GASTUEN EGOERA

Kapitulua Izendapena Euroak

**A)Eragiketa arruntak**
1.Langileen ordainsariak...........................455.247,00€
2.Ondasun arruten eta
zerbitzuen erosketa....................................33.800,00€
3.Interesak........................................................30,00€
4.Transferentzia arruntak............................34.500,00€

**DEL PATRONATO DEBA MUSIKAL**

ESTADO DE GASTOS

Capítulo Denominación Euros

**A)Operaciones corrientes**
1.Remuneraciones de personal..................455.247,00€
2.Compra de bienes corrientes
y de servicios.............................................33.800,00€
3.Intereses.........................................................30,00€
4.Transferencias corrientes.........................34.500,00€

| | |
|---|---|
| **B) Kapitalaren eragiketak**<br>6. Inbertsio errealen inorenganatzea………..9.500,00€<br>**GUZTIRA……………………………533.077,00€**<br><br>SARREREN EGOERA<br><br>**Kapitulua Izendapena Euroak**<br><br>**A)Eragiketa arruntak**<br>3.Tasak eta bestelako sarrerak...................122.800,00€<br>4.Transferentzia arruntak..........................410.077,00€<br>5.Ondare sarrerak...........................................200,00€<br>**GUZTIRA..............................................533.077,00€** | **B) Operaciones de capital**<br>6. Enajenación de inversiones reales............9.500,00€<br>**TOTAL ……………………………… 533.077,00€**<br><br>ESTADO DE INGRESOS<br><br>**Capítulo Denominación Euros**<br><br>**A)Operaciones corrientes**<br>3.Tasas y otros ingresos............................122.800,00€<br>4.Transferencias corrientes........................410.077,00€<br>5.Ingresos patrimoniales.................................200,00€<br>**TOTAL..................................................533.077,00€** |
| **<u>ESKU LANGINTZA ESKOLA PATRONATUARENA</u>**:<br><br>GASTUEN EGOERA<br><br>**Kapitulua Izendapena Euroak**<br><br>**A)Eragiketa arruntak**<br>1.Langileen ordainsariak...........................158.960,00€<br>2.Ondasun arruten eta<br>zerbitzuen erosketa....................................37.500,00€<br>**GUZTIRA 196.460,00€**<br><br>SARREREN EGOERA<br><br>**Kapitulua Izendapena Euroak**<br><br>**A)Eragiketa arruntak**<br>3.Tasak eta bestelako sarrerak......................8.200,00€<br>4.Transferentzia arruntak..........................188.260,00€<br>**GUZTIRA..............................................196.460,00€** | **<u>DEL PATRONATO ENSEÑANZAS ARTESANALES</u>**:<br><br>ESTADO DE GASTOS<br><br>**Capítulo Denominación Euros**<br><br>**A)Operaciones corrientes**<br>1.Remuneraciones de personal..................158.960,00€<br>2.Compra de bienes corrientes<br>y de servicios.............................................37.500,00€<br>**TOTAL 196.460,00€**<br><br>ESTADO DE INGRESOS<br><br>**Capítulo Denominación Euros**<br><br>**A)Operaciones corrientes**<br>3.Tasas y otros ingresos................................8.200,00€<br>4.Transferencias corrientes.......................188.260,00€<br>**TOTAL..................................................196.460,00€** |
| **<u>ITZIARKO TOKI ENTITATE TXIKIARENA</u>**:<br><br>GASTUEN EGOERA<br><br>**Kapitulua Izendapena Euroak**<br><br>**A)Eragiketa arruntak**<br>2.Ondasun arruten eta zerbitzuen erosketa ……………………………………....688.655,00€<br>4.Transferentziak………………………….....37.736,00€<br><br>**B) Kapitalaren eragiketak**<br>6. Inbertsio errealak……………………...128.548,00€<br><br>**GUZTIRA……………………………854.939,00€** | **<u>DE LA ENTIDAD LOCAL MENOR DE ITZIAR</u>**:<br><br>ESTADO DE GASTOS<br><br>**Capítulo Denominación Euros**<br><br>**A)Operaciones corrientes**<br>2.Compra de bienes corrientes y de servicios………………………………….688.655,00€<br>4.Trasnsferencias……………………..….. 37.736,00€<br><br>**B) Operaciones de capital**<br>6. Inversiones reales……………………..….128.548,00€<br>**TOTAL……………………………….854.939,00€** |

| SARREREN EGOERA | ESTADO DE INGRESOS |
|---|---|
| **Kapitulua Izendapena Euroak** | **Capítulo Denominación Euros** |
| **A)Eragiketa arruntak**<br>4.Transferentzia arruntak..........................854.939,00€ | **A)Operaciones corrientes**<br>4.Transferencias corrientes........................854.939,00€ |
| **GUZTIRA.............................................854.939,00€** | **TOTAL..................................................854.939,00€** |

**Hirugarrena.-** Erabaki hau XXri jakinarazi.

**Laugarrena.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onarpen erabakia eta kapitulukako laburpena.

**Bosgarrena.-** Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita bi hibaleteko epean.

## 4.- Eskariak eta galderak.

Aimar Lasa zinegotziak Danobat-eko eraikinaren eta eremuaren inguruan galdetu du.
Alkateak erantzun dio bilerak egon direla eta aparkalekua egiteko aukera landu dutela. Azaldu du bi aukera daudela, epe mugatuko alokairua edo erostea eta epe jakin baten ordaintzea, baina gaia Hirigintza batzordean landuko dela.

Aimarrek hotelaren inguruan galdetu du.
Alkateak eman du gaiaren berri eta azaldu du zein den Udalaren jokabidea jendea datorrenean informazio eske, hau da Banco Santanderrekin harremanetan jarri, Arau Subsidiarioen azalpena eman eta planoa eman. Azaldu dio segurtasuna bermatu aldera sarbideak ixteko eskatu zitzaiola Bankuari baina hotela okupatuta egonda ez dela orain arte posible izan eta auzitegira eraman duela gaia Bankuak.

Azkenik Aimarrek proposatu du akaso interesgarria izan daitekeela Udalarentzat hotela erostea.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

**IDAZKARIA**

Deban, 2018ko apirilaren 13an